

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2012ko martxoaren 12an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**7.- UDALEKO HOBAKUNTZA PROZESUAN AHOLKULARITZEA
ESKAITZEKO ETA JARRAIPEN LANAK EGITEKO ZERBITZU
KONTRATUA ESLEITZEA.**

Xedea

Udaleko hobakuntza prozesuan aholkularitza eskaintzeko eta jarraipen lanak egiteko zerbitzu kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2011ko abenduaren 19an Tokiko Gobernu Batzarrak baldintza tekniko eta administratiboak onetsi ebazan.

Bigarrena: Lau enpresari kontratazino honetan parte hartzeko gonbiteak bialdu jakezan, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 162.1. artikulua araberera. Batik bat: SIC, SA, AZARO FUNDAZIOA, ESTRATEGIA LOCAL eta ATTEST ITC SL enpresei.

Hirugarrena: 2012ko urtarrilaren 14an, SIC,SA enpresek eta ATTEST ITC SL enpresek, gonbite bidez helarazotako baldintzen araberera, jagokon proposamena aurkeztu eben eta horren arabera balioztapen txostena burutu zan.

Laugarrena: 2012ko urtarrilaren 30ean ATB Batzorde Informatiboan Attest ITC SL enpresea esleipendugai proposatu zan.

Bosgarrena: 2012ko zezeilaren 3an, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak eraentzen dauzan betekizunen araberera, jagokon errekerimendua bideratu jakon Attest ITC SL enpreseari.

Argudioak

Lehenengoa: Esleipendun proposatutako enpresek egindako errekerimenduaren araberera, behin betiko bermea jarri dau udal honetako Diruzaintzan eta Lan arriskuen inguruko enpresa jardueren koordinaziorako eskatutako ekintza guztiak burutu dauz.

Bigarrena: Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak eraentzen dauzan esleipen jardunbiderako betekizun guztiak jarraitu dira.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Kalidadeko ereduen arabera udalaren funtzionamendua hobetzeko zerbitzu kontratuaren esleipendun ATTEST ITC SL enpresea izendatzea.

BIGARRENA: Kontratua 27.140,00 € tan esleitzea. Prezioa, 23.000,00 €- eta BEZa 4.140,00 €.

HIRUGARRENA: Esleipendun proposatutako enpreseari segidan adierazoten diran jarduketak egin beharko dauzala jakinarazotea:

15 egun balioduneko epean, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizetako. Epea, esleipena jakinarazoten dan eguneko biharamunetik zenbatzen hasiko da.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2012ko martxoaren 15ean.

ONETSIA
ALKATEA